INGURUMENEKO TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA
(25.02.25)

INGURUMENEKO ZINEGOTZIA:
IÑIGO URKITZA jn.

INGURUMENEKO TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA jn.

FOROKO IDAZKARIA:
ARANTZA CABEZA and.

AHOLKULARIA:
EUGENIA ATIN and.

BERTARATUTAKOAK:

EMILIO MARTINEZ jn. (Julio Caro Baroja)
JOSERRA OTEGI jn. (Ekologistak Martxan)
ÁNGEL ASENSIO jn. (Basozaleakeko ordezkaria)
YENNY MEDRANO and. (Getxo Enpresako ordezkaria)
KOLDO NABASKUES jn. (Euskal Kontsumitzaileen Alkarteko ordezkaria)
JOKIN CORTEZÓN jn. (Argia Fundazioa)
XABIER BUENETXEA jn. (Ingurumen gaietan ospe handia duen pertsona)
IÑIGO AZKARATE jn. (Trinitarias)
JAVIER LOIDI jn. (Unibertsitate munduko pertsona)
MAITE PACHECO and. (Ikastola Geroa)
JAIME TÁNAGO jn. (Ingurumen gaietan ospe handia duen pertsona)

Honako hauek ezin etorria azaldu dute:
JANIRE OCIO and.(Hirigintza, Obra eta Zerbitzu Arloko Zinegotzia)
KARMELE URQUIJO and. (Gizatiarreko ordezkaria)
JUANJO QUIÑONES jn. (Urtealaiakeko ordezkaria)

Getxon, 2025eko otsailaren 25ean, arratsaldeko zazpietan bildu da Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa, eta arestian aipatutako kapitularrek parte hartu dute.

GAI ZERRENDA

Bileraren hasieran Eugenia Atinek adierazi du Foroko zenbait kidek ezin etorri izana adierazi dutela.

1.-2024ko azaroaren 26an egin ziren Ingurumeneko Toki Foroko bilkurei dagozkien aktak onestea.

Koldo Nabaskuesek adierazi du zamalanetarako guneen ordutegiak zabaltzeari buruz egin duen iruzkina online

ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE
(25.02.25)

CONCEJAL DE MEDIO AMBIENTE:
D. IÑIGO URKITZA

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

SECRETARIA DEL FORO:
Dª ARANTZA CABEZA

CONSULTORA:
Dª EUGENIA ATIN

ASISTENTES:

D. EMILIO MARTINEZ (Centro escolar Julio Caro Baroja)
D. JOSERRA OTEGI (Ekologistak Martxan)
D. ÁNGEL ASENSIO (Representante de Basozaleak)
Dª YENNY MEDRANO (Representante de Getxo Enpresa)
D. KOLDO NABASKUES (Representante de la Asociación de Personas Consumidoras y Usuarias Vasca)
D. JOKIN CORTEZÓN (Fundación Argia)
D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente)
D. IÑIGO AZKARATE (Centro escolar Trinitarias)
D. JAVIER LOIDI (Persona del mundo de la universidad)
Dª MAITE PACHECO (Ikastola Geroa)
D. JAIME TÁNAGO (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente)

Excusan su no asistencia:
Dª JANIRE OCIO (Concejala del Área de Infraestructuras, Obras y Servicios)
Dª KARMELE URQUIJO (Representante de Gizatiar)
D. JUANJO QUIÑONES (Representante de Urtealaiak)

En Getxo, a 25 de febrero de 2025 se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

ORDEN DEL DÍA

Al comienzo de la reunión, Eugenia Atin excusa la no asistencia de algunos miembros del Foro anteriormente citados.

1.- Aprobación del acta correspondiente a la reunión del Foro Local de Medio Ambiente, celebrada el 26 de noviembre de 2024.

Koldo Nabaskues señala que su comentario sobre ampliar los horarios de las zonas de carga y descarga se debe al aumento

salmenten igoera esponentzialari lotuta dagoela eta argudio hori aktan jaso beharko litzatekeela. Aldaketa horrekin, aho batez onartu dute akta.

2.- Getxoko flora eta fauna babesteko tokiko ekintzak

Xabier Buenetxeak Getxoko ingurune naturalari buruz egiten diren zenbait ikerketa aurkeztuko dituela azalduta hasi du saioa.

I. KAPITULUA: Hiri-biodibertsitatea

Xabier Buenetxeak azaldu du duela urte batzuk Getxoko parkeak eraldatzea pentsatu zutela, lorezaintza tradizionaletik eredu naturalizatuagoetara, bertako espezieak erabilita eta balio ekologiko handiagoko espazioak sortuta. Eredu hori parke guztietan aplikatzea zaila zenez, analisi bat egin zen egokienak identifikatzeko. Azkenean, hiru aukeratu ziren: Andramari, Real Socorro eta Etxezuri (Artaza hotela).

Bakoitzean ekintza zehatzak ezarri ziren, hala nola:

- Espezie exotikoen ordez tokiko klimara egokitutako bertako barietateak erabili.
- Urmaelak sortu, urlehortarrei eta uretako beste organismo batzuei laguntzeko.
- Hegaztientzako habia-kutxak eta saguzarrentzako babeslekuak jarri.
- Gune jakin batzuetan egur hila pilatu, intsektuak eta narrastiak babesteko.
- Biodibertsitatearen aldaketen etengabeko jarraipena.

Segimendu-metodologia bat ezarri zen, parke bakoitzera hamabostean behin edo hilean behin egiten diren bisitetan oinarritua, ezarritako neurrien eragina ebaluatzeko. Hiru arlo nagusitan zentratu ziren ekintzak:

- Fauna: Hegazti-espezieak behatu errolda egituratuen bidez, eta urlehortar-, narrasti- eta ugaztun-espezie berriak identifikatu.
- Azpiegitura: Putzuen, babeslekuen eta habia-kutxen egoeraren ebaluazioa, erabili diren egiaztatuta eta beharrezko hobekuntzak eginda.
- Landaretza: Flora autoktonoaren bilakaera monitorizatu, birsorkuntza naturaleko ereduak eta espezie inbaditzaileek sor ditzaketen arazoak identifikatuta.

Iñigo Urkitzak aipatu du Maria Kristina Parkearen azpiko maldetan txantxiku arrunta dagoela. Antzina ura zegoen eta jada ez dago, eta gainera igogailuak apo-populazioak zatitu zituen eta Tamarises inguruan autoek asko harrapatzen dituzte.

Mozketa mekanikoaren ordez ardiekin larratzea iradokitzen du Javier Loidik, CO_2 emisioak gutxitzeko. Xabier Buenetxeak erantzun du teknikoki bideragarria dela, baina prozesua behar bezala kudeatuko duen artzain bat aurkitu behar dela, eta bestelako mesfidantza egon daitekeela.

exponencial de las ventas online y que este argumento debería ser recogido en acta. Con esa modificación, se aprueba el acta por unanimidad.

2.- Actuaciones locales para la protección de la flora y la fauna de Getxo

Xabier Buenetxea abre la sesión explicando que va a exponer algunos estudios que se llevan a cabo sobre el medio natural de Getxo.

CAPÍTULO I: Biodiversidad Urbana

Xabier Buenetxea explica que hace algunos años se plantearon transformar los parques de Getxo desde una jardinería tradicional hacia modelos más naturalizados, empleando especies autóctonas y generando espacios de mayor valor ecológico. Ante la dificultad de aplicar este modelo en todos los parques, se realizó un análisis para identificar los más adecuados. Finalmente, se seleccionaron tres: Andramari, Real Socorro y Etxezuri (Hotel Artaza).

En cada uno se establecieron acciones concretas, como:

- Sustitución de especies exóticas por variedades autóctonas adaptadas al clima local.
- Creación de charcas para favorecer anfibios y otros organismos acuáticos.
- Instalación de cajas nido para aves y refugios para murciélagos.
- Acumulación de leña muerta en determinadas zonas para fomentar insectos y reptiles.
- Monitoreo constante de los cambios en la biodiversidad.

Se estableció una metodología de seguimiento basada en visitas quincenales o mensuales a cada parque para evaluar el impacto de las medidas implementadas. Las acciones se centraron en tres áreas principales:

- Fauna: Observación de especies de aves mediante censos estructurados, así como la identificación de nuevas especies de anfibios, reptiles y mamíferos.
- Infraestructura: Evaluación del estado de las charcas, refugios y cajas nido, verificando si han sido utilizadas y realizando las mejoras necesarias.
- Vegetación: Monitoreo de la evolución de flora autóctona, identificando patrones de regeneración natural y posibles problemas derivados de especies invasoras.

Iñigo Urkitza comenta que en las laderas de debajo del Parque de Maria Cristina hay sapo partero común. Antiguamente había agua y ya no hay, y además el ascensor dividió las poblaciones de sapo y hay muchos atropellos en la zona del Tamarises.

Javier Loidi sugiere el uso de pastoreo con ovejas en lugar de segado mecánico, reduciendo emisiones de CO_2. Xabier Buenetxea responde que es técnicamente viable, pero requiere encontrar un pastor que gestione correctamente el proceso y puede haber otras reticencias.

Hiri-eremuan katagorriak egoteari buruz ere eztabaidatu da. Azkorriko pinudiko populazioak ugaritu egin dira, baina, Jaime Tánagoren arabera, zirkulazioa eta habitataren zatiketa mehatxua dira oraindik ere.

Se discute también sobre la presencia de ardillas en el área urbana. Se ha registrado un aumento de poblaciones procedentes del pinar de Azkorri, aunque, según Jaime Tánago, el tráfico y la fragmentación del hábitat siguen siendo una amenaza.

Ángel Asensiok aipatu du Salsidutik Zubilletara doan zubiko hezegunearen eremua abandonatuta dagoela dirudiela. Jaime Tánagok dio abandonatzea onuragarria dela, eta zuhaixketan ibiltzen diren hegaztiak ugaritzea ahalbidetzen duela.

Ángel Asensio menciona que la zona del humedal del puente de Salsidu a Zubilletas parece abandonada. Jaime Tánago señala que el abandono es beneficioso y que permite que proliferen las aves de carácter arbustivo.

Jaime Tánagok adierazi du Fadurako kanpoko igerilekuaren perimetro berrian gerezi-erramua (prunus laurocerasus) erabili dutela, espezie exotikoa dena. Javier Loidik haztegien interesak eta ezjakintasuna aipatu ditu, prunus lusitanikoa erabil zitekeelako, hazkunde azkarreko beste beti berde autoktonoa. Josu Atekak dio Udala izan ez den arren, espezie exotikoak pixkanaka desagerrarazi eta espezie autoktonoak berriz sartu behar ditugula oreka ekologikoa berreskuratzeko. Javier Loidik azpimarratu du garrantzitsua dela lorezaintzako jarduketa bakoitza teknikari batek gainbegiratzea.

Jaime Tánago señala que en el nuevo perímetro de la piscina exterior de Fadura se ha utilizado el laurel cerezo, prunus laurocerasus que es una especie exótica. Javier Loidi apunta a los intereses de los viveros y el desconocimiento, porque se podría haber utilizado prunus lusitánica que es otra siempre verde autótoctona de rápido crecimiento. Josu Ateka señala que a pesar de que no ha sido el Ayuntamiento, si debemos ir hacia una eliminación progresiva de las especies exóticas y la reintroducción de especies autóctonas para recuperar el equilibrio ecológico. Javier Loidi incide en la importancia de que cada actuación de jardinería esté supervisada por una persona técnica.

Zuhaitzei buruzko Plan Zuzentzailearekin egiten ari diren lana balioan jarri nahi du Iñigo Urkitzak. Zuhaitzei tomografiak egin dizkiete arriskuak identifikatzeko. Kale Nagusian ezki eta bananondo batzuk moztu behar izan dituzte eta herritarrak babes osoa ematen ari dira, eta hori eskertzekoa da.

Iñigo Urkitza quiere poner en valor el trabajo que se está haciendo con el Plan Director de arbolado. Se han hecho tomografías a los árboles para identificar los riesgos. En la calle Mayor se han tenido que talar algunos tilos y plátanos y la ciudadanía está dando todo su apoyo, lo cual es de agradecer.

Angel Asensiok galdetu du ea parke pribatuetan jarduketarik egiten den. Batzuetan bai, adibidez, Getxo Naturako tailer batean 40 habia-kutxa erosi ziren. Haurrek “tuneatu” zituzten, eta batzuk eremu pribatuetan daude.

Ángel Asensio pregunta a ver si se hacen actuaciones en parques privados. Algunas veces sí, por ejemplo, en un taller que hubo de Getxo Natura, se compraron 40 cajas nido que las niñas y niños “tunearon” y algunas están en zonas privadas.

II. KAPITULUA: Udalerriko faunaren jarraipena

CAPÍTULO II: Seguimiento Faunístico Municipal

Xabier Buenetxeak azaldu du Getxoko apo lasterkariaren jarraipena 2007an abiatutako proiektu baten parte dela, Prestige-ren garbiketa lanen ondorioz espeziea desagertu ondoren —kumeak hazteko eremuak kendu zizkioten—.

Xabier Buenetxea explica que el seguimiento del sapo corredor en Getxo forma parte de un proyecto iniciado en 2007, tras la desaparición de la especie a causa de las labores de limpieza del Prestige, que eliminaron sus zonas de cría.

Gaur egun, ugaritasun-indize erlatiboetan oinarritutako monitorizazioa egiten da, aldizkako gaueko trantsektuak eta kantuko ar-erroldak eginda, teknika inbaditzaileak saihestuta. Martxoa eta ekaina bitartean eta irailean egiten dira behaketak.

Actualmente se realiza una monitorización basada en índices relativos de abundancia, mediante transectos nocturnos periódicos y censos de machos en canto, evitando técnicas invasivas. Las observaciones se hacen entre marzo y junio, y en septiembre.

Gainera, eguneko bisitak egiten dira azpiegiturak aztertzeko, errunaldiak bilatzeko, ale gazteak kontrolatzeko eta putzuen egoera ebaluatzeko. Batzuetan, ura eskuz bota da habitatak mantentzeko.

Además, se llevan a cabo visitas diurnas para revisar infraestructuras, buscar puestas, controlar los juveniles y evaluar el estado de las charcas. En ocasiones se ha aportado agua manualmente para mantener los hábitats.

Hainbat putzu natural eta artifizial kontrolatzen dira, eta nagusia LN1 da. Putzu batzuek ez dute funtzionatu eguzki faltagatik edo itsasoak kaltetu dituelako.

Se controlan varias charcas naturales y artificiales, siendo la principal la conocida como LN1. Algunas balsas no han funcionado por falta de sol o porque el mar las ha dañado.

Xabier Buenetxeak kumeak hazteko guneak dibertsifikatzearen garrantzia azpimarratu du, putzu bakar baten menpe ez egoteko eta horrela Bizkaian dagoen apo lasterkariaren populazio bakarra babesteko.

Xabier Buenetxea subraya la importancia de diversificar los puntos de cría, para no depender de una sola charca y proteger así la única población de sapo corredor existente en Bizkaia.

Jaime Tánagok galdetu du ea Neguriko estolderian entzuten dena (autoen lurpeko pasabidea) apo lasterkaria edo txantxikua den. Xabier Buenetxeak txantxiku arrunta dela erantzun du eta eskertu egin du aipatu izana, eremua ez zuelako identifikatuta.

Jaime Tánago pregunta a ver si lo que se escucha en el alcantarillado de Neguri (donde el paso subterráneo de coches) es sapo corredor o partero. Xabier Buenetxea responde que se trata del sapo partero común y agradece que se lo haya comentado puesto que no tenía la zona identificada.

Apo lasterkariaren ugalketari dagokionez, 2024an ugalketa-tasa altua erregistratu da, baina 2023an baino pixka bat txikiagoa, urte hartan ohiz kanpokoa izan baitzen. Une larrietan, taldeak ura eskuz bota behar izan zuen putzuetara, lehortu ez zitezen.

Respecto a la reproducción del sapo corredor, en 2024 se ha registrado una tasa reproductiva alta, aunque ligeramente menor que en 2023, año en que fue excepcional. En momentos críticos, el equipo tuvo que aportar agua manualmente a las charcas para evitar que se secaran.

Ugalketaren gehiengoa putzu nagusian gertatzen da oraindik (LN1), norbanakoen ia % 100 biltzen du, nahiz eta umatze-guneak dibertsifikatzeko ahaleginak egiten ari diren. 2022az geroztik egindako hobekuntzek, Aldundiaren laguntzarekin, habitataren kudeaketan aurrerapen esanguratsuak ahalbidetu dituzte.

La mayoría de la reproducción sigue ocurriendo en la charca principal (LN1), que concentra casi el 100% de los individuos, aunque se están realizando esfuerzos para diversificar los puntos de cría. Las mejoras introducidas desde 2022, con apoyo de la Diputación, han permitido avances significativos en la gestión del hábitat.

Xabier Buenetxeak azaldu du apo lasterkaria oso erresistentea dela eta muturreko baldintzetara egokitzen dela, baita nolabaiteko gazitasunera ere, eta horrek bereizten duela beste espezie batzuetatik. Larben garapena azkarra da, eta horrek harrapariak saihesten laguntzen du, nahiz eta haien hilkortasuna ere altua izan. Bizkaian ezagutzen den populazio bakarra da, eta duela gutxi desagertzeko arriskuan dagoen espezie gisa katalogatu dute.

Xabier Buenetxea explica que el sapo corredor es muy resistente y se adapta a condiciones extremas, incluida cierta salinidad, lo que lo diferencia de otras especies. Su desarrollo larvario es rápido, lo que ayuda a evitar depredadores, aunque su mortalidad también es alta. Se trata de la única población conocida en Bizkaia, y recientemente ha sido catalogado como especie en peligro de extinción.

Kostaldeko faunari dagokionez, Xabier Buenetxeak labarretako eta txilardi atlantikoetako hegazti harkaiztarren jarraipena azaldu du. Behaketa zuzenaren eta aipuen erregistroaren bidez egiten da, eta arreta berezia eskaintzen zaie espezie ugaltzaileei: belatza, zapelatza, apo-hontza, mozoloa, zata, harkaitz-zozo urdina eta belea. Txilardiaren perimetroko itxiturei esker, umatze-garaiko eragozpenak murriztu egin dira, eta populazioak berreskuratzea ahalbidetu da. Jaime Tánagok dio oso egokia iruditzen zaiola hesia jartzea txilardiak zapaltzetik, bizikletetatik, zaldietatik eta abarretik babesteko.

En cuanto a la fauna costera, Xabier Buenetxea explica el seguimiento de aves rupícolas en los acantilados y brezales atlánticos. Se realiza mediante observación directa y registro de citas, con especial atención a especies reproductoras como el cernícalo, halcón, autillo, mochuelo, chotacabras, roquero solitario y cuervo. Gracias a los cierres perimetrales del brezal, se ha reducido la perturbación en época de cría, permitiendo una recuperación de poblaciones. Jaime Tánago comenta que le parece muy acertado el cercado para proteger el brezal del pisoteo, las bicis, los caballos…

Javier Loidik dio, txilardia giza-formazioa denez, bere ustez, aktiboki esku hartu beharko litzatekeela txilardia kontserbatzeko, zuhaitzak kenduta eta kontrolatutako erreketen bidez, garai bateko abeltzaintza eta su-erabilerak imitatuta.

Javier Loidi comenta que, al ser el brezal una formación antropógena, en su opinión, se debería intervenir activamente para su conservación mediante eliminación de árboles y quemas controladas, imitando los antiguos usos ganaderos y de fuego que lo mantenían.

Jaime Tánagok mozoloa urtaroko espeziea den galdetu du, baina ez dela hala argitu du, sedentarioa dela baizik. Espezie nahiko arrunta da inguruan, eta presentzia egonkorra du. Azpimarratu dute errotatik gertu lurralde aktibo bat dagoela Sarrikobason.

Jaime Tánago pregunta si el mochuelo es una especie estacional, a lo que se aclara que no lo es, sino que es sedentario. Es una especie bastante común en la zona, con presencia estable. Se destaca que hay un territorio activo cerca del molino en Sarrikobaso.

Xabier Buenetxeak hegazti arrunten habitataren araberako jarraipena azaldu du ondoren; lan ildo horrek aztertzen du nola aldatzen den fauna landaretza-egituraren aldaketen arabera, hala nola zuhaixkak areagotu diren eremuetan. Zenbait trantsektu adierazgarri definitu ziren: Kortiñe kostaldeko landazabalean, Bolue barneko haranean Martiartutik gertu, eta Azkorri kostaldeko pinudian. Trantsektu bakoitzak 1 km-ko ibilbidea du, eta urtean zehar egiten da aldian behin, behatutako espezie guztiak eta haien ugaritasuna erregistratzeko. Jarraipen orokorraz gain, espezie babestuen

Xabier Buenetxea explica a continuación el seguimiento de aves comunes por hábitat, una línea de trabajo que analiza cómo varía la fauna en función de los cambios en la estructura vegetal, como en zonas donde el paisaje se ha vuelto más arbustivo. Se definieron varios transectos representativos: en la campiña costera Kortiñe, en el valle interior de Bolúe cerca de Martiartu, y en el pinar costero de Azkorri. Cada transecto tiene un recorrido de 1 km y se realiza de forma periódica a lo largo del año, registrando todas las especies observadas y su abundancia. Además del seguimiento general, también se lleva a cabo un

edo arraroen jarraipen espezifikoa ere egiten da, behaketa-guneen eta argazki-tranpen bidez. Datu horiek GIS sistema batean integratzen dira, habien eta lurraldeen mapak egiteko eta, horrela, kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzeko. Ondorioztatu zen kostaldeko landazabala dibertsitate handieneko habitata dela, bereziki garrantzitsua hegazti migratzaileentzat, eta pinudia ere uste baino baliotsuagoa dela, igarobidean dauden espezieei babesa ematen dielako. Urteko txostenetan, espezieen kontserbazio egoera eta arrarotasuna aztertzeko aukera ematen duten grafikoak biltzen dira, nahiz eta oraingoz ez den joera kezkagarririk antzeman.

seguimiento específico de especies protegidas o raras, mediante puntos de observación y fototrampeo. Estos datos se integran en un sistema GIS para mapear los nidos y territorios, y permitir así una gestión más efectiva. Se concluyó que la campiña costera es el hábitat con mayor diversidad, especialmente relevante para aves migratorias, y que el pinar también es más valioso de lo que se pensaba, al ofrecer refugio a especies en tránsito. En los informes anuales se recogen gráficas que permiten analizar el estado de conservación y rareza de las especies, aunque por ahora no se ha detectado una tendencia preocupante.

III. KAPITULUA: Bolueko hezeguneko faunaren jarraipena

CAPÍTULO III: Seguimiento Faunístico del Humedal de Bolue

Xabier Buenetxeak azaldu du Bolueko hezegunean astero egiten dituztela behatzeko bisitak, baita entzuteko estazioak, erroldak eta eraztunak jarri ere. Espeziearen arabera, behaketak programatzen dira eguneko hainbat unetan (egunekoak, gauekoak, arratsaldekoak). Ugaztunei dagokienez, presentzia arrasto eta aztarnen bidez bilatzen da, baita linternen argia erabilita ere. Fauna detektatzeko kamerak ere erabiltzen dira argazki-tranpak egiteko.

Xabier Buenetxea explica que en el humedal de Bolúe se realizan visitas semanales de observación, incluyendo estaciones de escucha, censos y anillamientos. Dependiendo de la especie, se programan observaciones en distintos momentos del día (diurnas, nocturnas, vespertinas). En mamíferos, se busca la presencia a través de rastros, huellas y “foqueos” con linterna. También se utilizan cámaras de fototrampeo para detectar fauna.

Jaime Tánagok duela gutxi aurkitutako igaraba arrastoez galdetu du, Xabier Buenetxeak koipua espeziearenak direla erantzun du. Igaraba Asuan eta Butroe ibaian dagoela baieztatu da, karramarro gorria gustatzen zaio.

Jaime Tánago pregunta por las huellas de nutria que se han encontrado recientemente, Xabier Buenetxea responde que son de koipua. Nutria se ha confirmado en Asua y en el río Butrón, le gusta el cangrejo rojo.

Angel Asensiok galdetu du ea baimenduta dagoen Azkorrin ehiza egitea, erantzun diote antzina Bolue inguruan eta barnealdean baietz, baina urte asko direla jada ez dagoela.

Angel Asensio pregunta si está permitida la caza en Azkorri, se responde que antiguamente en la zona costera y el interior de Bolúe pero que hace muchos años que ya no.

Kanaberadien erabilerari dagokionez, urtean bi mozketa egiten dira ur-azalaren azpian, gehiegi haz ez dadin eta ur-xaflak manten daitezen. Ekintza horiek kontu handiz planifikatzen dira ugalketa-garaietatik kanpo eta apoarmatuak eta beste espezie sentikor batzuk daudela kontuan hartuta.

Sobre el manejo del cañizal, se realizan dos cortas anuales bajo la superficie del agua, para evitar que crezca en exceso y mantener las láminas de agua. Estas acciones se planifican cuidadosamente fuera de las épocas de reproducción y teniendo en cuenta la presencia de galápagos y otras especies sensibles.

Espezie adierazgarrien jarraipenari dagokionez, arreta berezia jarri da hezeguneetako hegaztietan, hala nola benarriz arrunta (galzorian), lezkari arrunta eta lezkari karratxina. Espezie horiek hezegunearen kudeaketa egokia den ebaluatzen laguntzen dute. Migrazio-bide atlantikoan Bolue atseden hartzeko eta elikatzeko gune garrantzitsua dela azpimarratu da, hegazti askorentzat funtsezko habitat bihurtzen baita. Berriki 1. putzua birgaitu da, eta horrek murriztu diren espezieak berreskuratzen lagun dezake.

Respecto al seguimiento de especies indicadoras, se presta especial atención a aves de humedal como el carricerín común (en peligro de extinción), el carnicero común, y el carnicero tordal. Estas especies ayudan a evaluar si la gestión del humedal es adecuada. Se destaca la importancia de Bolúe como punto de descanso y alimentación en la ruta migratoria atlántica, lo cual lo convierte en un hábitat clave para muchas aves. La reciente rehabilitación de la balsa 1 podría favorecer la recuperación de especies que habían disminuido.

Tximutxaren baieztatutako oharrik ez dagoela aipatu dute, nahiz eta zalantzazko zita bat gorde. Uroilanda handiaren errolda ere egiten ari dira, kantu bereizgarriagatik antzematen den espeziea. Badirudi bertako populazioak errekuperazio-seinaleak ageri dituela iaztik, bereziki hezegunean hobekuntzak egin ondoren.

Se comenta que no hay observaciones confirmadas de bigotudo, aunque se conserva una cita dudosa. También se está realizando el censo del rascón, una especie que se detecta por su canto característico. Parece que su población muestra señales de recuperación desde el año pasado, especialmente tras las mejoras en el humedal.

Xabier Buenetxeak azaldu du Bolue hezegunean hainbat espezie ikusi dituztela, hala nola, kopetazuria eta amiltxori txikia. Azken hau umatzen hastera iritsi zen, baina ziklogenesi batek oilaskoak akabatu zituen eta ez zen berriro ugaldu.

Xabier Buenetxea explica que en el humedal de Bolúe se han observado especies como la focha y el abetorillo. Este último llegó a iniciar la cría, pero una ciclogénesis acabó con sus pollos y no volvió a reproducirse. En cambio, la focha ha mostrado una

Kopetazuriak, aldiz, susperraldi positiboa erakutsi du: gaur egun bizpahiru bikote ugaltzaile daude lokalizatuta.

Hegazti negutarrei dagokienez, Xabier Buenetxeak koartza-populazioen (koartza hauskara, koartzatxoa eta amiltxori arrunta) hazkunde ona azpimarratu du. Jaime Tánagok koartzatxo itzainaren inguruan galdetu du, eta Xabier Buenetxeak dio azkenaldian nahiago izan duela Astrabuduako hezegunera joan.
Jaime Tánagok galdetu du, halaber, ea katuak arriskutsuak izan daitezkeen hegaztientzat. Erantzun diote basa-fauna beste espezie batzuekin lehiatzen dela, hala nola katajinetekin, lepazuriekin, azkonarrekin eta azeriekin, baina katuak presio-faktoreak direla, bereziki hegaztiak hazten diren garaian.

Xabierrek SOS Galapagoak proiektua aurkeztu du, apoarmatu korrontezalearen, apoarmatu istilzalearen eta espezie exotikoen jarraipena egiteko. Beita edo eguzki-plataformekin egindako tranpak erabiltzen dira, txip identifikatzaile bat jartzen zaie, eta datu biometrikoak biltzen dira. Harrapaketa, markatzea eta berriro harrapatzea da erabilitako teknika, eta, horri esker, zehatz kalkula daiteke populazioaren tamaina eta haren bilakaera. Horrez gain, Gobela ibaian kokatze-trantsektuak egiten dira, eguzkitan termorregulatzen ari diren bitartean apoarmatuak behatzeko. Animalia exotikoak detektatzen direnean, harrapatu egiten dira, ekosistematik kentzeko.
2024an 82 harrapaketa erregistratu dira: 15 apoarmatu istilzale, 64 korrontezale eta 3 exotiko. Analisian udaberriko eta udazkeneko laginketa ofizialetan harrapatutako animaliak bakarrik zenbatu dira, konparagarritasun estatistikoari eusteko.
Apoarmatu istilzalea espezie zaurgarria eta lehentasunezkoa da. Nolabaiteko susperraldia izan du, bereziki 1. putzuan. Lehen ez zen bakar bat ere harrapatzen, eta orain kolonizazio aktiboa dago. 85 banako markatu dira guztira, nahiz eta batzuk galdu egin diren eta gaur egun 60-70 aktibo daudela kalkulatzen den. Arren eta emeen arteko proportzioa populazio osasuntsu batentzat espero denaren barruan dago. Heldugabeen presentzia oso txikia da, eta horrek erreklutamendu arazo bat adierazten du: ez dira kume berriak jaiotzen ari. Lurralde-portaera eta joan-etorriak aztertzeko, satelite bidezko igorgailuak eta irrati-jarraipena jartzen hasi dira, Aldundiarekin elkarlanean. Horri esker, norbanako bakoitza behatu ahal izango da eta kontserbaziorako estrategia zehatzagoak diseinatu ahal izango dira.

Hiru animalia exotiko harrapatu dira aurten, harrapatutako apoarmatu exotikoen kopuru osoa asko jaitsi da, eta azken harrapatutakoak askatu berriak izan litezke. Bilakaera urteko grafikoetan jarraitzen da, eta datuek iradokitzen dute erauzte-ahalegina eraginkorra izan dela, nahiz eta etengabeko zaintza behar den.

IV. KAPITULUA: Hegaztien Eraztunketa Zientifikoa

Xabier Buenetxeak azaldu du eraztunketa zientifikorako EMAN (Hegazti Habiagileen Monitorizazio Estazioak) programan parte hartzen dela, Bolue hezeguneko puntu finkoetan sareak jarrita. Saioak hamar egunean behin egiten

recuperación positiva: actualmente hay dos o tres parejas reproductoras localizadas.

Respecto a las aves invernantes, Xabier Buenetxea destaca el crecimiento favorable de poblaciones de garzas (garza real, garceta y martinete). Jaime Tánago pregunta por la garcilla bueyera y Xabier Buenetxea dice que últimamente ha preferido desplazarse al humedal de Astrabudúa.

Jaime Tánago pregunta también a ver si los gatos pueden suponer una amenaza para las aves, se responde que la fauna silvestre compite con otras especies como jinetas, garduñas, tejones y zorros, pero los gatos sí que son uno de los factores de presión, especialmente durante la época de cría de las aves.

Xabier presenta el Proyecto SOS Galápagos, centrado en el seguimiento del galápago leproso, el galápago europeo y especies exóticas. Se realizan capturas mediante trampas con cebo o plataformas de sol, se les coloca un chip identificador, y se recopilan datos biométricos. La técnica utilizada es captura, marcaje y recaptura, lo que permite estimar con precisión el tamaño de la población y su evolución. Además, se realizan transectos de localización en el río Gobela para observar galápagos mientras están termorregulando al sol. Cuando se detectan ejemplares exóticos, se intenta capturarlos para retirarlos del ecosistema.

En 2024 se han registrado 82 capturas: 15 galápagos europeos, 64 leprosos y 3 exóticos. Solo se contabilizan en el análisis los ejemplares capturados durante los muestreos oficiales de primavera y otoño, para mantener la comparabilidad estadística.

El galápago europeo, una especie vulnerable y prioritaria, ha mostrado cierta recuperación, especialmente en la balsa 1, donde antes no se capturaba ningún ejemplar y ahora se observa una colonización activa. Se ha alcanzado un total de 85 individuos marcados, aunque algunos se han perdido y se estima que actualmente hay entre 60 y 70 activos. La proporción entre machos y hembras se mantiene dentro de lo esperable para una población sana. La presencia de subadultos es muy baja, lo que indica un problema de reclutamiento: no están naciendo nuevas crías. Para estudiar su comportamiento territorial y desplazamientos, se han empezado a colocar emisores por satélite y radioseguimiento, en colaboración con la Diputación. Esto permitirá vigilar a cada individuo y diseñar estrategias más precisas de conservación.

Se han capturado tres ejemplares exóticos este año, el número total de galápagos exóticos capturados ha disminuido mucho, y que las últimas capturas podrían corresponder a individuos recién soltados. La evolución se sigue en gráficas anuales, y los datos sugieren que el esfuerzo de extracción ha sido eficaz, aunque se requiere una vigilancia continua.

CAPÍTULO IV: Anillamiento Científico de Aves

Xabier Buenetxea explica que se participa en el programa EMAN (Estaciones de Monitorización de Aves Nidificantes) de anillamiento científico, colocando redes en puntos fijos del humedal de Bolúe. Las sesiones se realizan cada diez días

dira ugalketa-garaian, eta hilean behin neguan. Horrez gain, eraztun-jartzaileentzako prestakuntza-eskola bat ere badago, eta saio praktikoak egiten dira hezegunean. Lortutako datuek udal-kudeaketarako eta Europako migrazio-ibilbideetan hezeguneak duen garrantzia ulertzeko balio dute. Beste herrialde batzuetan eraztuna duten hegaztiak berriz harrapatu dituztela erregistratu da, eta horrek enklabearen balio ekologikoa indartzen du.

Azpimarratutako datuen artean aipatu dute martin arrantzalea hezegune horretan eraztun gehien dituen espezieetako bat dela estatu mailan, eta horrek uste baino populazio zabalagoa adierazten duela. Ale gazte gehienak maiatza-ekainean agertzen dira, kumatu ondoren, eta ale askok Europako iparraldetik migratzen dute, eta hezegunea erabiltzen dute atseden hartzeko eta elikatzeko eremu gisa. Adierazi dutenez, bikote batzuk Bolue bailarako zubien azpian hazten dira, gune ezkutuetan. Inguruko beste leku batzuk erabiltzen dituztela ere identifikatu dute, hala nola Arriluze, hegaztiek pausalekuak aurkitzen dituzten lekua.

durante la época reproductiva, y con frecuencia mensual en invierno. Existe también una escuela de formación para futuros anilladores, con sesiones prácticas en el humedal. Los datos obtenidos sirven tanto para la gestión municipal como para entender la importancia del humedal en las rutas migratorias europeas. Se han registrado recapturas de aves anilladas en otros países, lo que refuerza el valor ecológico del enclave.

Entre los datos destacados, se menciona que el Martín pescador es una de las especies más anilladas a nivel estatal en este humedal, lo que indica una población más amplia de lo que se creía. La mayor parte de los juveniles aparecen en mayo-junio, tras la cría, y muchos individuos migran desde el norte de Europa, utilizando el humedal como área de descanso y alimentación. Se señala que algunas parejas crían bajo puentes del valle de Bolúe, en zonas discretas. También se identifica el uso de otros lugares cercanos como Arriluce, donde las aves encuentran posaderos.

V. KAPITULUA: Udalerriko flora

Getxoko landaretza-mapa aurkeztu da, mapen eta aurretiko datuen berrikuspen sistematikoaren emaitza, eta landa-lanarekin osatu da, landare-orbanak identifikatzeko eta zuzentzeko. Habitat-tipologiak ezarri ziren, hala nola larreak, pinudiak edo landazabalak, eta datu guztiak GIS sistema batean txertatu ziren. Horri esker, udalerriko landare-estaldura xehetasunez ikus daiteke, eta hori erabilgarria da etorkizuneko jarduketetarako.

Jaime Tánagok galdetu du bertakoak ez diren espezieak agertu ote diren; adibidez, dragoitxo arrunta, Portu Zaharrean edo Usategin atzeman baitute. Espezie horiek kontainer edo lorezaintza bidez iritsi zirela baieztatu dute, eta batzuk ingurunean naturalizatu dira.

CAPÍTULO V: Flora del Municipio

Se presenta el mapa de vegetación de Getxo, resultado de una revisión sistemática de mapas y datos previos, complementada con trabajo de campo para identificar y corregir manchas vegetales. Se establecieron tipologías de hábitat como prados, pinares o campiñas, y todos los datos se integraron en un sistema GIS. Esto permite una visualización muy detallada de la cobertura vegetal del municipio, útil para futuras actuaciones.

Jaime Tánago pregunta por la aparición de especies no autóctonas como la salamanquesa común, detectada en zonas como el Puerto Viejo o Usategi. Se confirma que estas especies llegaron mediante contenedores o jardinería, y algunas se han naturalizado en la zona.

Jarraitu beharreko ildoak 2024-2027

Amaitzeko, Josu Atekak 2030 Agendaren esparruan proposatutako jarduketa-ildoak azaldu ditu, bi arlotan banatuta: biodibertsitatea eta ekosistemak. Biodibertsitateari dagokionez, herritarrentzako zientzia-aplikazio bat garatzeko asmoa dago, bizilagunek espezie adierazle edo exotikoak ikus ditzaten. Udalak datuak baliozkotuko ditu, eta ingurumen-kudeaketa hobetzeko erabiliko ditu. Hiri-eremuan, parkeen naturalizazioarekin jarraitu nahi da, eta, horretarako, aurretik izandako esperientziak espazio berrietara zabaldu nahi dira.

Maila teknikoan, flora, putzu eta ibilguei buruzko inbentario berriak egingo dira, baita elementu geologikoei edo ondare-elementuei buruzkoak ere. Udal-jabetzako landa-lurretan jarduteko beharra ere aipatzen da.

Besteak beste, ailantoa eta arbustu japoniarra espezie exotikoak desagerrarazteko lanak jarraituko du. Galea inguruaren kasuan, golf klubarekin negoziatzen ari dira, heskai inbaditzaileen ordez bertako espezieak jartzeko.

Líneas a seguir 2024-2027

Para cerrar, Josu Ateka presenta las líneas de actuación previstas dentro del marco de la Agenda 2030, divididas en dos áreas: biodiversidad y ecosistemas. En biodiversidad, se planea el desarrollo de una app de ciencia ciudadana, que permitirá a los vecinos registrar avistamientos de especies indicadoras o exóticas. Desde el Ayuntamiento se validarán los datos y se usarán para mejorar la gestión ambiental. En el ámbito urbano, se pretende continuar la naturalización de parques, ampliando experiencias previas a nuevos espacios.

A nivel técnico, se trabajará en nuevos inventarios de flora, charcas, cauces, e incluso de elementos geológicos o patrimoniales. Se menciona también la necesidad de actuar sobre terrenos rústicos de propiedad municipal.

Se continuará el trabajo de eliminación de especies exóticas como ailanto y aligustre del Japón, entre otras. En el caso de la zona de La Galea, se está negociando con el club de golf para reemplazar setos invasores por especies autóctonas.

URAk edo Eusko Jaurlaritzak esku hartu beharko lukeen galdetuta, erantzun dute praktikan udalak hartzen duela kudeaketaren zati handi bat bere gain, araudiaren arabera “administrazio eskuduna” delako.

Ante la pregunta de si URA o Gobierno Vasco debería intervenir, se responde que en la práctica el Ayuntamiento asume gran parte de la gestión, al ser la “administración competente” según la normativa.

Vespa velutinaren (Asiako liztorra) aurkako ekintzak aipatu ditu Emilio Martinezek. Foru Aldundiarekin eta DBHko ikastetxeekin elkarlanean, proiektu komunitario baten barruan tranpak jartzen ari direla jakinarazi du. Hezkuntza-talde bakoitza kopuruaren jarraipenaz eta zenbaketaz arduratuko da. Datuak Aldundiarekin partekatuko dituzte. Tranpak ez direla oso selektiboak aipatu dute, eta tximeletak, sitsak eta bestelako polinizatzaileak ere harrapa ditzaketela. Josu Atekak proiektu honi buruzko informazio gehiago eskatu dio Emilio Martinezi.

Emilio Martínez comenta las acciones contra la Vespa velutina (avispa asiática). Informa de que, en colaboración con la Diputación y centros educativos de DBH/ ESO, se están instalando trampas dentro de un proyecto comunitario. Cada grupo educativo se encargará del seguimiento y recuento de ejemplares. Los datos serán compartidos con la Diputación. Se comenta que las trampas son poco selectivas y pueden atrapar también mariposas, polillas y otros polinizadores. Josu Ateka solicita a Emilio Martinez más información sobre este proyecto.

Udalerriko bidezidor publikoak berreskuratzeko proiektua ere iragarri du Josu Atekak. Aurretik ere egin dute ikerketa bat, eta helburua da bide tradizionalak zaharberritzea, bide promozionatu bihurtu gabe eta haien erabilera turistikoa sustatu gabe.

Josu Ateka anuncia también un proyecto para la recuperación de senderos públicos del municipio. Ya se ha realizado una investigación previa y el objetivo es restaurar los caminos tradicionales, sin convertirlos en rutas promocionadas ni fomentar su uso turístico.

Beste jarduketa-ildo bat udalerriko baso txikietan oinarritzen da, batez ere Bolue basoaren inguruan, eukaliptoen ordez suaren aurkako erresistentzia handiagoa duten hostozabalak eta klima-aldaketara hobeto egokitutakoak jarri nahi baitira. Baso-masa horien leheneratze ekologikoan aurrera egin nahi da, haien erresilientzia eta biodibertsitatea hobetzeko.

Otra línea de actuación se enfoca en los pequeños bosques del municipio, especialmente en la zona del bosque de Bolúe, donde se quiere sustituir eucaliptos por frondosas más resistentes al fuego y mejor adaptadas al cambio climático. Se pretende avanzar en la restauración ecológica de estas masas forestales para mejorar su resiliencia y biodiversidad.

3.- Galde-eskeak.

3.- Ruegos y preguntas.

Aldundiak kudeatzen duen Garbigunearen inguruetan hondakin elektronikoen isurketaren arazoa salatu nahi du Jaime Tánagok. Hainbat salaketa eta bilera egin diren arren, ez da konpondu hondakinen edukiontzietarako sarbidea eta kontrolik eza, eta horrek zabor elektronikoa modu onartezinean pilatzea eragin du. Edukiontzi horiek zona seguruago eta zainduagoetan jartzea proposatu zuten, "hondakinen supermerkatu" gisa jardun ez dezaten

Jaime Tánago quiere denunciar el problema del vertido de residuos electrónicos en las inmediaciones del Garbigune, gestionado por la Diputación. A pesar de varias denuncias y reuniones, no se ha solucionado el acceso y descontrolado a los contenedores de residuos, lo que ha derivado en acumulaciones inaceptables de basura electrónica. Se propuso que estos contenedores se coloquen en zonas más seguras y vigiladas, para evitar que actúen como un "supermercado de residuos".

21:10ean bilera amaitutzat eman da.

A las 21:10 horas se da por finalizada la reunión.